



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental

Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2021eko irailaren 1ekoa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez egiten baita Oiartzungo (Gipuzkoa) LIN-8 Arkotz hirigintzako esku-hartze arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren irismen-dokumentua.

## AURREKARIAK

2021eko uztailaren 6an, Oiartzungo Udalak eskabidea egin zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Oiartzungo LIN-8 Arkotz hirigintzako esku-hartze arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zedin, bat etorrita Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrarekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi ziren; tartean, planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikuluetan eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Oiartzungo Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, bestek beste, helburu hau betetzen dela: aukera egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-

Donostia 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz



ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da, hau da, ingurumen-ebaluazio estrategikoa, arauaren 1. eranskineko A) apartatuan jasotako planei buruz, eta, hain zuzen ere, Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Berezia plan horien artean dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

##### 1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

2015eko martxoan onartutako Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak LIN-8 Arkotz HEA eremua mugatzen du, aurreko plangintza orokorreko zehaztapenak eta 2012an behin betiko onartutako xehetasun-azterketa finkatuta, eta haren egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua ezartzen ditu.

Hiri-lurzoru finkatu gabe gisa sailkatzen du eremua (19.548 m<sup>2</sup>-ko azalera du), jarduera ekonomikoetarako, eta honako gune oroko hauek ezartzen ditu:

- Ibai-ibilguak (sistema orokorra). Ubidea babestea. Azalera: 798 m<sup>2</sup>
- Hiriko berdeguneak (sistema orokorra). Azalera: 5.050 m<sup>2</sup>
- Jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako gunea. Azalera: 13.700 m<sup>2</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sarea egitea berriki onartu denez, eremuaren antolamendu xehatua aldatu behar izan da, trenbide-sarearen trazadurak kalte egingo baitio. Zehazki, eremuaren zati bat trenbide-sektoreak «okupatzea aurreikus daitekeen erreserbabanda» gisa sartzen da.

LIN-8 Arkotz hirigintza-jarduketarako arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziak helburu du LIN-8 Arkotz HEaren antolamendu xehatua aldatzea. Horrela, plangintzan sartu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren informazio-azterketa osagarriaren zehaztapenak: Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartea, aipatutako eremuari dagokionez.

Plan Bereziak, gainera, beste helburu bat dauka: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planaren eta ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren (Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duena) zehaztapenak txertatzea plangintzan. Uraren Euskal Agentziak (URA) 2013ko abuztuaren 5eko eman zuen txostenaren arabera (Arkotz eremuari buruzko 2012ko xehetasunen azterketa onartzeari dagokionez), honako hauek zehaztu dira:

- GI-636 errepidearekiko paraleloan dagoen zerbitzu-bidea aldatzea, 5 metroko zortasun-eremua eta egoera onean dagoen ibaiertzeko landaredia bere horretan utzita.
- Zubi berriaren sestrak diseinatzea, taularen behealdeko ur-mailatik hasi eta behearaino, 500 urteko errepikatze-denborako uraldiaren kotarekiko (18,31 imgm-ko kota) metro bateko edo gehiagoko babesgarri bat mantentzeko. Edonola ere, babesgarri hori zubiaren erdiko puntuaren zabalera % 2,5 izango da gutxienez.
- Antolamendu-eremutik ibaian behera egoera prekarioan dagoen pasabidea kentzea eta haren ertzak leheneratzea aurreikustea.

Hori dela eta, honako hauek dira Plan Bereziak bere antolamendu-esparruaren barruan hartzen dituen helburu orokorrak:

1. Plan Orokorrak proposatutako jarduera ekonomikoen programari erantzutea, eta, aldi berean, hirigintza-garapena nola ingurune naturalean hala artifizialean integratzea.
2. Proiektatutako garapenaren ingurumen-inpaktuak arintzea; bereziki, antolamendu-eremuaren orografia malkartsuan integratzeari dagokionez, lur-mugimenduak eta, ondorioz, urbanizazio-gastuak ahal den neurrian murrizteko.
3. Eremua zeharkatzen duen ibai-ibilgua era naturalean leheneratzen dela bermatzea, uholde-arriskuak saihesteko eta bi ibaiertzetako baso mistoen formazioa babesteko.
4. Hirigintza-garapenaren barruko ibilgailuen bidea integratzea gaur egun inguruan dagoen bide-sarearekin (nahikoa beteta dago), GI-636 errepidearekin ondo lotzen dela bermatzeko eta Lanbarren industrialdera doan zirkulazioa murrizteko.
5. Donostia-Irun ardatzeko oinezkoentzako eta bizikletentzako trazadurari jarraipena ematea, eta, hala, proiektatutako hirigintza-garapenak ibilgailu pribatuarekiko duen erabateko mendekotasuna partzialki arintzea.
6. Hirigintza-garapenaren jasangarritasuna bermatzea, baliabide naturalen eta energetikoen erabilera eraginkortasun handieneko materialak eta instalazioak aurreikusita.

#### Aztertutako aukerak

Aukerei dagokionez, hasierako dokumentu estrategikoan (HDE), zero aukera edo jarduketarik gabekoa jasotzen da, eta industria-eraikinak eta hirugarren sektorekoak finkatzen ditu, LIN-8 Arkotz HEaren 2012ko xehetasunen azterketako proposamenaren arabera, aurreko irudian ikusten den bezala.

Beste aukera Plan Berezian proposatutakoa da: indarrean dagoen plangintzan ezarritakoaren antzera, Plan Bereziak bi lurzati pribatu antolatzen ditu Arkotzerreka erreka bi ertzetan (Lintzirin erreka ere esaten zaio), jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako eraikin berriak ez ezik, horien erabilera osagarriak ere hartuko dituztenak. Lurzati nagusiak (b.1) eremuaren ia hegoalde osoa eta erreka ezkerreko ertza hartzen ditu, eta trenbide-jabari publikoarekin egiten du muga ekialdean, ibai-ibilgua babesteko bandarekin iparraldean, eta antolamendu-eremuaren mugarekin hegoaldean eta mendebaldean. Eraikuntza-aprobetxamendua sestra gaineko 3 solairuko eraikuntza-pieza bakar batean egingo da (10 metroko altuerakoa gehienez). Hotel- eta turismo-zerbitzuetarako erabiliko da. Lurzati horietako eremu eraikiezinak ibilgailuentzako sarbideetarako, aparkalekuetarako eta maniobraguneetarako, zerbitzu-instalazioetarako eta lorategi eta zuhaitzirik gabeko espazioetarako baino ez dira erabiliko; gune horietan, berariaz debekatuko da materialak aire zabalean biltegitzea eta pilatzea.

b.1 lurzatiak 6.949 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta eraikuntza-pieza bakarrean hartuko du aurreikusitako aprobetxamenduaren zatirik handiena. Lur-mugimendu handiak egingo dira, baita mendi-hegala egonkortzeko lanak ere. Urbanizazio-kota onartutakoa baino 1,5 m gehiago igo da, uholde-arriskurik egon ez dadin. Eraikuntza-profila honako hau da: beheko solairua sestra azpian, eta hiru solairu sestra gainean (10 m-ko altuera gehienez). Sestra azpiko solairua biltegitako eta garajerako bakarrik erabili ahal izango da. Gainerako solairuak jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako erabili ahal izango dira.

Aurreikusitako antolamenduak espazio libre publikoetara bideratzen ditu Arkotzerreka erreka bi ertzak, urbanizazioak ibai-ibilguarekiko gutxienezko atzerapena errespetatzen duela bermatuta; bertan, jatorrizko topografia zainduko da, inolako aldaketarik egin gabe, eta lehendik dagoen landaredia indartuko da.

Eremuan aurreikusitako bide-sareari erreparatuta, bide-eskema bat proiektatu da GI-636 errepidearen trazadura zaharraren ondoan, eremua zeharkatzen duena eta Lanbarren industrialdearekin lotzen duena ekialdean.

Ibilgailuentzako bidearen alboan, oinezkoentzako eta bizikletentzako bide bat egingo da.

Aparkatzeko 70 toki egingo dira guztira, eta horietatik 20, gutxienez, lurrazalean egongo dira.

## 2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketalerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, eta 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:



- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzenetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiriaren barriadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta, horretarako, irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren bidez, mugikortasunaren bidez eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigitatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, eta baliabide hori era jasangarrian erabiltzea.
- h) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta baterako sorkuntza sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitze neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak gutxitzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduketa bultzatzeko.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketak kontuan hartu behar du proposatutako jarduketetan sartzeko direla ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, aipatutako garapen jasangarriko printzipioetatik datozenak.

### 3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Arkotz eremua Oiartzungo udal-mugartearen iparraldean dago, Arragua auzoan, Lezoko udal-mugartearen mugatik gertu, eta 19.548 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Eremua jarduera ekonomikoetara bideratutako hiru industrialderen ondoan dago: Makarraztegi, Lintzirin eta Lanbarren. Industrialde horiek AP-1/AP-8 bideak, Renfe eta Euskotreneko trenbideak eta GI-636 errepideak osatzen duten komunikazio-ardatzaren inguruan daude. Aipatutako industria-jardueren eremu garatuz eta komunikazio-bideez gain, ingurunean, baso-azalaren eta nekazaritza eta abeltzaintzako azalaren mosaiko bat geratzen da, eta horrek, oro har, hiri-inguruko giro baten ezaugarriak ematen dizkio, erabilera desberdinen arteko tentsioa bereizgarri duena.

Arkotz eremuak GI-636 errepidea du iparraldean, eta Renfe eta Euskotreneko trenbideak ekialdean. Mendebaldean eta hegoaldean, ordea, garatu gabeko lursailekin egiten du muga, non baso-landaredia eta belardiak kontserbatzen diren, hurrenez hurren. Eremuan –iparraldeko mugan partzialki urbanizatuta dago–, zuhaitzak eta, batez ere, zuhaixkak dituzten azalera geratzen dira, eremuaren hegoalderantz dauden malda handieneko lursailei dagozkienak.

Ingurumenaren ikuspegitik, nabarmendu behar da eremuko ingurumen-balio interesgarriak, batez ere, Arkotzerreka errekarrekin lotuta daudela (zati batean, hormek bideratzen dute), bai eta ibaiertzetako baso-landareekin eta inguruko beste baso-masa batzuekin ere. Eremua ez da

ezein naturagune babestutan sartzen, eta ez da identifikatu Basoko eta Itsasoko Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan sartutako espezierik. Halaber, ez dago bere garapena baldintzatuko duen ingurumen-arrisku nabarmenik.

Arkotz eremuan ez da interes geologiko edo geomorfologikoko punturik identifikatu. Halaber, ez da kokatzen Euskadiko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioko IGL batean ere.

Eremua ez dator bat interes hidrogeologikoko ezein eremurekin.

Azterketa honen xede den eremua mantenguzko ekarpenarekiko sentikorrek diren eremuen artean sartzen da (Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta erkidego barruko arroetako inguru kalteberak izendatzen dituen urriaren 16ko 214/2012 Dekretuaren bidez izendatua), eutrofizazio-arriskua duen estuarioa da eta.

Giza jardueren ondorioz lurraldea eraldatu egin denez, jatorrizko landaredia ia erabat aldatu da, belardiak, labore-lursailak eta baso-landaketak sortzeko. Hala ere, errekaren ezkerreko ertzeko hegialak *Quercus robur* espeziea nagusi den baso azidofilo gisa deskribatzen dira, eta landareak nagusiki basokoak dira; interes ekologiko handiko hariztia da.

Eremuan ez da identifikatu Habitategi buruzko Zuzentarauan jasotako Batasunaren intereseko habitatik.

Halaber, ez da aurkitu Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan erregistratutako espezierik. Nabarmendu behar da Arkotz eremua ferra-saguzar mediterraneoaren (*Rhinolophus euryale*) Interes Berezikoko Eremuan (IBE) sartzen dela. Eremuaren ezaugarriak direla eta, eta haitzuloetako espeziea dela kontuan hartuta, ez da aurreikusten habiak egiteko lekuetan eraginik izango duenik. Hala ere, baso-eremuak erabil ditzake elikatzeko.

Arriskuei dagokienez, aipatu behar da eremuak 500 urteko errepikatze-denborako uraldien uholde-arriskua duela; batez ere, eremuaren mendebaldeko erdialdean. Horrez gain, 10 urteko errepikatze-denborako uraldien uholde-arriskua ere bat dator Arkotzerrekako lehentasunezko fluxu-eremuarekin, eta eremuaren azaleraren % 9ri eragiten dio. Azkenik, 100 urteko uraldien uholde-arriskua duen eremuak azaleraren % 13ri eragingo dio.

Arkotz eremua kutsadurarekiko kalteberatasun oso txikia duten akuiferoen gainean dago.

Eremuaren inguruan, zarata-foku nagusi gisa identifikatzen dira AP-8 autobidea, GI-636 errepidea eta ADIF eta ETS trenbide-lineak, bai eta Arkotz ingurunean industrialdeen industria-jarduera bera ere. Azterketaren xede den eremua AP-8 errepidearen eragin-eremuaren barruan dago. Errepide hori eremuaren hegoaldean eta lehengo N-1 errepidean doa (gaur egun, GI-636). Oiarzungo zarata-maparen arabera, egungo egoeran gairatu egingo lirateke azterketa-eremuaren zati batean esleitutako kalitate akustikoko helburuak, zehazki GI-636 errepidean gertu dagoen lursail-zerrenda batean. Datu horiek egiaztatu egin beharko dira azterketa honen xede den plan bereziaren esparruan egingo den azterketa akustikoan.

#### 4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan ondorio nabarmenak dituzten jarduketak egiteko, desegokitzat jo beharko dira aurreko apartatuan jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Aurreko apartatuetan aipatu den bezala, eremua 500, 100 eta 10 urteko errepikatze-denborako uraldien uholdeek urez bete ditzaketen eremuei dagokie, eta bat dator Arkotzerrekako lehentasunezko fluxu-eremuarekin.

Dena den, eremu horiek ez dira desegokiak jarduketak egiteko, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: sistema hidrológicoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; uholde-arriskua; naturaren eta Batasunaren intereseko habitaten kontserbazioa; lurzoru kutsatuak, eta kutsadura akustikoa. Ingurumen-azterketa estrategikoan justifikatu beharko da jarduketak bateragarriak direla aipatutako arauak ezartzen dutenarekin.

#### 5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbildu da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

- Ingurumen-azterketa estrategikoak tren-azpiegituraren eraginpeko eremuetan lursailaren erabileraren eta aprobetxamenduaren mugei buruzko zehaztapen guztiak jaso beharko ditu, eta behar bezala identifikatu trenbidearen eragin-eremuak, HAPBren 2.06 planoko akatsak zuzenduta (planaren zirriborroan –hasierako dokumentuan– agertzen dira).
- Zaratari dagokionez, lehendik dauden azpiegiturarako eta urbanizazio berrietarako erreferentzia-balioak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan jasotakoak dira. Trenbide-ardatz handien zarata-mapak eskuragarri daude.
- Aurreikusitako lur-mugimenduei dagokienez, aurrerapen-dokumentuak adierazten du, eremuaren orografia malkartsua ikusita, nabarmenak izango direla; horregatik, garrantzitsua da espero diren soberako lurren bolumenaren hasierako aurreikuspena egitea, eta horiek kudeatzeko jarraibideak ematea.

Soberakinak gordetzeko betelanak egin behar izanez gero, ezinbestekoa da balizko kokalekuak izapidetu behar den ingurumen-ebaluazioan sartzea, HAPBren garapenari modu bereizezinean lotutako jarduketak baitira.

- Ingurumen-azterketa estrategikoan sartu beharreko zuzenketa-neurrien artean, indartze-landaketak egitea sartu beharko litzateke, bai Arkotzerreka errekaen ertzetan bai hirigintzako esku-hartzearen areako gainerako espazio libreetan eta berdeguneetan, zuhaitzen funtzionaltasun ekologikoa indartzeko, industria- eta azpiegitura-garapenen eragin handia duen ingurune batean.

Landareztatze horiek ahalik eta xehetasun handienarekin definitzea gomendatzen da, eta, gutxienez, oinarritzko jarraibide batzuk ematea espezie autoktonoak erabiltzeko, mantentze-lanak egiteko eta abarrerako.

- Eremuan dauden espezie inbaditzaileak desagerrarazteko eta kontrolatzeko neurrien proposamen sakona, HAPBk espezie horiek sortzen duten ingurumen-arazo larria okerragotzen ez duela bermatzeko, ezartzen diren ekosistemak eraldatu eta sinplifikatzearen ondorioz, eta, ahal izanez gero, egungo flora inbaditzailea kenduta, espazio libreetan eta berdeguneetan egungoa baino egoera ekologiko hobea lortu ahal izateko.

#### 6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

LIN-8 Arkotz hirigintza-jarduketarako arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziak helburu du LIN-8 Arkotz HEaren antolamendu xehatua aldatzea. Horrela, plangintzan sartu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren informazio-azterketa osagarriaren zehaztapenak: Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartea, aipatutako eremuari dagokionez.



Ingurumen-azterketa estrategikoak (Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak –planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena– II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
  - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
  - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
  - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
  - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
  - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalena eta xeheena; honako hauek, zehazki:

#### 6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

##### 6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Azterketak labur-labur jasoko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Zehaztu egin beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian gaineratik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Partziala.



- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa Sortzeko Lurralde Plan Partziala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki, uholde-arriskuko guneekin lotutako zehaztapenak eta Ereku Babestuen Erregistroa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Partziala.
- Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

Gainera, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko *Trenbide-sare berriaren informazio-azterketa osagarria* izeneko dokumentua. Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartea.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, kontsulta-gunerako esteka ere txertatuta.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Europar Batasunekoak, Espainiako Estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean. Plan edo programa sektorialen helburuak eta jarduketako ildoak gainjartzen badira edo gatazkak edo bateraezintasunak sortzen badira, jarduteko aukerak ebaluatu beharko dira, hautemandako arazoak eta behar diren koordinazio-neurriak agerian utzita. Espezifikoki justifikatu beharko da ebazpen honen 2. apartatuan jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta irizpideak nola bete diren.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du azterketak, eta haiak lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.

Espedienteko txostenen arabera, ingurumen-azterketa estrategikoak tren-azpiegituraren eraginpeko eremuetan lursailaren erabileraren eta aprobetxamenduaren mugei buruzko zehaztapen guztiak jaso beharko ditu, eta behar bezala identifikatu trenbidearen eragin-eremuak. Horrez gain, behar izanez gero, bai Azterketako bai Planaren zirriborroko informazio grafikoa egokitu eta zuzendu beharko du.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu, eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, pdf eta shape formatuetan.

### 6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, zero aukera edo esku ez hartzekoa ere hartuko da kontuan; kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-aukerak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako aukera.

d. Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

## 6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da Planeko ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzen.

Azterketak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

### 6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

- a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, horien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.
- b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak jakinaraziko dira, baleude; esaterako, ibai-ibilguak, fauna- eta flora-espezie mehatxatuen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta landaredia, flora eta fauna autoktonoak. Egungo elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak ere, plana gauzatzean areagotu daitezkeenak.
- c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.
- d. Ingurumen-arriskuak eta arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak eta aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Azterketak eremuaren zarataren azterketa bat jaso beharko du, bai eta aurreikusitako garapenaren ondoren kalitate akustikoko helburuak betetzen direla ziurtatzeko behar diren zuzenketa-neurriak ere. Hori ezinezkoa bada, beste neurri batzuk aurkeztuko dira, eremuan dagoen arazo akustikoa minimizatzen.

Iturri kutsagarriak dagoen identifikatuko da, bai eta lurzoru kutsa dezaketen jarduerak izan dituen lurzorurik dagoen.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

- e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da.
- f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremurik dagoen eta ukituta gerta daitezkeen biztanleria, etab.

### 6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak hauteman beharko du zer eremuk sor ditzakeen arazoak ingurumenaren ikuspegitik, eremu horiek proposamenen garapenarekin bateragarriak izan daitezkeen; horretarako, kontuan hartu beharko du ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela, hala nola ebazpen honen 3. apartatuan aipatzen direnak.

Halaber, eremuaren ingurumen-diagnostiko zehatza egin beharko da, eremuaren harreragaitasuna, arrisku-guneak eta ingurune hauskor edo kalteberak ebaluatu ahal izateko.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira uholde-arriskua duten eremuekin eta kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

### 6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen planean bildutako ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer-nolako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriei eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-ondorio guzti-guztiak bereizi beharko dira, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Planean horrela deskribatutako ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Lurrazaleko urek izandako eraginak; zehazki, Arkotzerreka erreka ezkerreko ertzera iristeko egingo den zubia eraikitzearen ondoriozkoak. Gainera, eremuko jarduketak berekin ekarriko ditu lur-mugimenduak eta makinaren joan-etorriak, eta horrek jariatze-uretatik solido esekiak arrastatzea eragin dezake, bai eta isuri-arroan ibaian behera dauden ibilguetako uren kalitatea kaltetzea ere –kolakarentzako Interes Berezikoko Eremu gisa identifikatuta daude (*Alosa alosa*)–.
- Landarediak izandako eraginak; horien artean, Arkotzerreka erreka ertzetako zuhaitz-masa hostotsuak nabarmentzen dira.
- Faunak edo haren habitatek izandako eraginak.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrológicoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua).
- Indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak, kutsatuta egon daitezkeen kokalekuetan egindakoetan arreta berezia jarrita.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuen (KAH) betetze-maila aztertuko du, aurreikusitako erabilera araberak; industrialdeko kalitate akustikoko helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren prebentzio- eta/edo zuzenketa-neurriak jasoko

ditu. Azterketa horretan, aldaketak proposatutako antolamenduaren eta indarrean dagoen antolamenduaren etorkizuneko egoera akustikoa baloratuko da.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efectuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eragina jasan lezakeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
- Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri bereziak.
- Aurkako ingurumen-baldintzak, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzeko moduan.
- Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak edo ondoreak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio edo efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Hautemandako ekintza horrek Planeko zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan sartzea eskatzen duen adieraziko da, eta kasu bakoitzean eragindako planifikazio-tresna zehaztuko da.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmendu.

#### 6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatu diren eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi diren ondorioekin lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ingurune hidrikoa babesteari buruzko neurriak: obra-fasean neurriak proposatuko dira eremuko azaleko uren kalitatea murriztea saihesteko.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Eremuaren barnean Planaren garapenak zuzenean eragingo ez dion landaredia babesteko neurri espezifikoak zehaztuko dira.

- Kalitate akustikoko helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hotsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.

- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri diren irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).

- Ibai-ibilguen inguruan dauden garapen-eremuetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 aldiko Plan Hidrologikoan ezarritakoa bete beharko da, ibaiertzak eta ibai-korridorearen ekologia- eta paisaia-dibertsitateari eta funtzionaltasunari laguntzen dieten elementuak aldatzea eta artifizializatzea saihestuta eta, ahal den guztietan, lehengoratztea, biziberritzea eta hobetzea sustatuta.

- Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*. Gainera, Planak espezie exotiko inbaditzaileak desagerrarazteko programa bat jasoko du, bai eta planteatutako obrak egin ondoren sor daitezkeen aleak kontrolatzeko, goiz detektatzeko eta kentzeko plan bat ere. Plan horretan neurri bat sartuko da, behin sektorea urbanizatuta hutsik dauden orubeak espezie inbaditzaileak sakabanatzeko guna bihur ez daitezen, eta horiek berehala kentzea aurreikusiko da.

- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan, ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, eta *Cortaderia selloana*. Era berean, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena saihesteko eta horiek kentzeko.

- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (21/2013, abenduaren 9koa) eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu hainbat neurri, Planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida*. *Udalsarea 21 lan-koadernoa* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta, horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adieraziko da.

## 6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak aurreikusteko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak behar bezala ezartzen diren gainbegiratzea.
  - Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
  - Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihestu edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
  - Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.
- b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.
- c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, bai eta kasu bakoitzean datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

#### 6.6. Ingurumen-laburpena

- a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.
- b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### 6.7. Laburpen ez-teknikoa

- a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.
- b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

#### 7. Jendaurreko informazioko eta kontsultarako izapideak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoiei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Gipuzkoako Osasun Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.

- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Euskal Trenbide Sareko Zuzendaritza Nagusia (ETS).
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarte.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte).

## 8. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organuari, eta barnean hartuko ditu plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

Bigarrena. -Ebazpen hau Oiartzungo Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. -Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Gasteizen, 2021eko irailaren 1.

INGURUMENAREN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA  
Javier Aguirre Orcajo